



Arartekoaren 2024R-1706-23 Ebazpena, 2024ko apirilaren 9koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen zaio berrius dezala babes publikoko etxebizitza bat errentamendu-araubidean zuzenean esleitzeko eskaera ukatzeko erabakia.

Aurrekariak

1. Arartekoak etxebizitza-premia larria zuela adierazi zuen herritar baten kexa izapidetzeko onartu zuen.

Idazkian, kexagileak Arartekoari azaldu zion 62 urteko amarekin eta 4 urteko alabarekin bizi zela. Ildo horretan, jakinarazi zion amak % 70eko desgaitasuna eta mendekotasuneko I. maila zituela aitortuta. Era berean, azaldu zion udalaren titulartasuneko gizarte-larrialdiko etxebizitza batean bizi zirela. Hain zuzen ere, baliabide hori erabiltzeko aukera ematen zieten bigarren aldia zela adierazi zuen, ezin baitute merkatu libreko etxebizitza bat alokatu bizi diren udalerrian.

Hala ere, udalaren jakinarazpen bat jaso zuten. Bertan, etxebizitza uzteko agindu zitzaizen, ezarritako gehieneko egonaldia gainditu zutela egiaztatu baitzuten.

Testuinguru horretan, kexagileak adierazi zuen beldur zela 62 urteko amarekin eta 4 urteko alabarekin kalean geratzeko.

2. Azaldutako gertakariak ikusita, 2023ko ekainaren 29an, Arartekoak lankidetz-eskaera bat igorri zion kexagilea eta haren bizikidetz-unitatea bizi diren udalari.

Idazkian, Arartekoak kexagileak deskribatutako egoeraren berri eman zion, eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek egindako jarduketei buruzko informazioa eskatu zion.

3. Laguntza-eskaeraren erantzun gisa, 2023ko abuztuaren 7an, erakunde honetako erregistroan udalaren erantzun-idazkia jaso zen, eta horrekin batera oinarrizko gizarte-zerbitzuek egindako txosten bat erantsi zen.

Zehazki, adierazitako premiazko etxebizitza-beharrari dagokionez, honako hau adierazi zen igorritako txostenean:

-
"Se han acogido en dos ocasiones a la familia en un recurso residencial de Urgencia lo que demuestra una incapacidad de conseguir un lugar residencial.

...se decide realizar solicitud de adjudicación de vivienda a pesar de estar en la misma situación atendiendo a las características de vulnerabilidad de la



familia, señalar que las adjudicaciones directas deben ser solicitadas vía telemática en la aplicación que no contempla otros supuestos, que sí dicta (...) la ley, por lo que no sabemos cuál será la respuesta."

Honela amaitzen da txostena:

- "...desde los Servicios Sociales de Base como desde el Ayuntamiento se han puesto en marcha todos los recursos disponibles, pero carecemos de viviendas que reúnan las condiciones adecuadas para la unidad familiar, por lo que se solicita una vivienda social que permita a esta familia conseguir una estabilidad que les permita continuar con su proceso."

4. Udalak bidalitako informazioaren arabera, 2023ko abuztuaren 22an, Arartekoak laguntza eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari.

Bere idazkian, kexagilearen egoeraren berri eman zuen Arartekoak, eta txosten bat bidaltzeko eskatu zuen, oinarrizko gizarte-zerbitzuek ezohiko prozeduraren bidez adjudikatzeko proposamena eskatu ondoren egindako jarduketak azaltzeko.

Halaber, Arartekoak eskatu zuen argitzeko zergatik ez oinarrizko gizarte-zerbitzuek ez kexagileak berak ez zuten jaso Etxebizitza sailburuordearen ebazpena, eskaera zergatik ukatu zen zehatz-mehatz azaltzen duena.

Era berean, Etxebizitza sailburuordeak erabilitako tresna edo aplikazio informatikoari buruz galdetu zuen; izan ere, kontsultatutako oinarrizko gizarte-zerbitzuen arabera, etxebizitza-premia berezia duten kolektiboen eskaerak izapidetzea eragozten zien.

Azkenik, Arartekoak gogoeta batzuk helarazi zizkion sailburuari. Horiek ez errepikatzearren, geroago azalduko dira.

5. Azkenik, egindako lankidetzak-eskaerari erantzunez, 2023ko abenduaren 13an Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko sailburuaren Kabineteko zuzendariaren erantzuna jaso genuen erakunde honen sarrera-erregistroan.

Laburbilduz, igorritako txostenak baieztatu zuen Etxebizitza Sailburuordetzak etxebizitza bat zuzenean adjudikatzeko eskaera bat jaso zuela. Horretarako, oinarrizko gizarte-zerbitzuek egindako txostena gehitu zen.

Horren ildotik, Kabineteko zuzendariak argudiatu zuen kexagilea eta beraren bizikidetzak-unitatea ez zeudela etxebizitza bat ezohiko prozeduraren bidez adjudikatzeko aukera ematen duten kasuetako batean.



lido beretik, adierazi zuen etxebizitza-premia larria dutelako oinarrizko gizarte-zerbitzuetara jotzen duten pertsonak ez dutela interesdun-izaerarik. Horregatik, berretsi zuen prozedura horretan ez zela ebazpenik eman.

Era berean, txostenak adierazi zuen 2023ko azaroaren 14an Etxebizitzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak kexagileari jakinarazi ziola zein diren adjudikazio-prozedurak, baremazio-irizpideak eta babes publikoko etxebizitzak eskuratzeko baldintzak.

Azkenik, oinarrizko gizarte-zerbitzuek zuzeneko adjudikazio-eskaera aurkezteko izapide elektronikoak egiteko orduan izandako eragozpenei dagokienez, txostenak honako hau adierazi zuen berariaz:

- *"Prozedura digitalizatuta dago, eta eskaera administrazio honen egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar da."*¹

6. Horrenbestez, beharrezko egitateak eta zuzenbide-elementuak daude, eta horregatik honako gogoeta hauek egiten dira

Gogoetak

1. Arartekoak ondo baino hobeto daki nolakoa den babes publikoko etxebizitzak errentamendu-araubidean esleitzeko prozedura arrunta. Izan ere, higiezinak emateko proposamenetan aintzat hartzen dira etxebizitza behar duten pertsonen arteko lehia-irizpide zorrotzak, baremazio-sistema baten arabera.

Hala ere, Arartekoak badaki etxebizitzaren arloko araudian bertan sarritan ematen dela aukera etxebizitza adjudikatzeko ohiko prozeduratik kanpo uzteko etxebizitza-premia bereziak direla-eta ezohiko tratamendua merezi duten kasuak.

Horri dagokionez, Arartekoak badaki erabat ezohikoa dela babes publikoko etxebizitza bat zuzenean adjudikatzea, baita horrelako eskaerak izapidetzen direnean Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak araudia zorrotz bete behar duela ere.

Hori dela eta, Arartekoak egokitzen du ezohiko prozedura hori modu sakabanatuan eta amaitu gabean arautzen duten arau-xedapenak aztertzea, abuztuaren 16ko 2023R-367-23 ebazpenean² egin zuen bezala.

¹ **Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. Egoitza elektronikoa. Izapideen katalogoa:**<https://www.euskadi.eus/baimena/babes-publicoko-etxebizitza-edo-antzekoa-zuzenean-edo-ohiz-kanpo-esleitzea/web01-tramite/eu/>

² Arartekoa. Arartekoaren 2023R-367-23 Ebazpena, 2023ko abuztuaren 16koa Honen bidez Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen zaio berrius dezala babes publikoko etxebizitza bat errentamendu-araubidean zuzenean adjudikatzeko eskaera ukatzeko erabakia. Hemen eskuragarri www.ararteko.eus



2. Azterketaren lehen urratsa ezinbestean izan behar da zehaztea zer organok daukan eskumena zuzeneko adjudikazio-prozedurak ebazteko.

Hori dela eta, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 11.2 f) artikulua Etxebizitza Sailburuordetzari ematen dio arlo honetan egiten diren proposamenen inguruko erabakiak hartzeko ahalmena.

Eskatutako arau-betekizunei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak honetara jo ohi du: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Agindua, genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzako etxebizitzaren alorreko ekintza positiboko neurriei buruzkoa.

Zehazki, 6. artikulua bete beharreko gutxieneko eskakizun batzuk ezartzen ditu, genero-indarkeriaren biktime diren emakumeen kolektiboari aukera ematen diotenak etxebizitza bat adjudikatzeko jarduketak hasteko beharrezkoak diren izapideen berri izateko. Horrela, funtsean, gizarte-zerbitzuek txosten tekniko bat egiteko eskatzen da, eskatzailearen egoera pertsonal eta familiarri eta haren etxebizitza-egoerari erreferentzia egingo diona.

Gero, eskabidea eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek egindako txostena interesduna bizi den udalerriko arlo honetako zinegotzitzak edo alkatetzak sinatu behar ditu.

Azkenik, aurrean aipatu bezala, Etxebizitza Sailburuordetzak ebatzi behar du babes publikoko etxebizitza adjudikatuko den edo ez.

2006an genero-indarkeriaren biktime diren emakumeen aldeko ekintza positibo gisa eratu zen prozedura gaur egun beste kolektibo batzuetara zabaldu da, eta horri esker aurre egin ahal zaie etxebizitza-beharrizan berezi batzuei.

Hala ere, argudiatzen saiatuko garen bezala, gaur egun erabiltzen diren prozedurak, Arartekoaren iritziz, ez du administrazio-prozedura orok izan behar duen behar bezalako bermerik.

3. Hain zuzen ere, Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren gaineko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak, abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuak aldatzen duenak, 12.3 artikuluan ezartzen du nortzuek har dezaketen neurri honen onura.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Arartekoari bidalitako erantzunean dio hizpide dugun ezohiko prozedurari honako hauek baino ezin diotela heldu: indarkeria terroristaren biktimek, genero-indarkeriaren biktimek, ordezkari biziak eskubidea daukaten pertsonak eta



bizikidetzta-unitateek, eta etxetik bota ondoren egoera bereziki larrian dauden pertsonak.

Izan ere, kontsultatutako oinarrizko gizarte-zerbitzuek berretsi dute egoitza elektronikoko izapideak arestian zehaztutako kasuetan soilik ahalbidetzen duela eskaera egitea, eta eskaera ezin dela araudian jasotako beste aukera batzuetara zabaldu.

Testuinguru zehatz horretan, Arartekoak uste du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ezohiko prozedura hau erabiltzeko aukera mugatu diela berriaz martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 12.3 artikulua hiru hirugarren paragrafoan aipatzen diren beste kolektibo batzuetako kideei.

Hara zer dioten hitzez hitz hirugarren paragrafoak:

- *“Halaber, organo horrek (Etxebizitza Sailburuordetza) etxebizitzak edo zuzkidura-bizitokiak esleitu ahal izango ditu zuzenean, Etxebizitzako lurralde-ordetzkaritzek, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako beste sail batzuek modu arrazoituan eskatzen dutenean, etxebizitza-premia berezia duten kasuetan, hau da, dekretu honetako hirugarren xedapen gehigarriko 2.c) apartatuan aurreikusten diren kasuetan eta Gobernu Planak bete ahal izateko.”*

Horri dagokionez, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 2 f) artikulua etxebizitza-beharrizan berezia daukaten kolektiboa zehazten du (agindu hori ere abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuak aldatzen du).

Kolektibo horren barruan daude, berriaz, kideetako bat gutxienez hauetakoa den bizikidetzta-unitateak:

“desgaitasun intelektual edo garapen-desgaitasunen bat duten pertsonak eta gaixotasun mentalen bat duten pertsonak, familia gurasobakarrak, (...), dibortziatuak edo legez banatutakoak, familia ugariak, (...) 60 urtetik gorakoak.”

Beraz, Arartekoaren iritziz Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak etxebizitza-beharrizan berezia duten kolektiboetara etxebizitza ezohiko prozeduraren bidez eskuratzeko aukera kentzen die.

Etxebizitzaren Legearen 32.2 artikulua orain arte azaldutakoaren alde dago; hara:

- *“Etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak, foru-aldundiak, udalak, kontzejuek eta toki-erakunde txikiak beraiek sustatutako babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozeduratik kanpo utz ditzakete ordezkoko etxebizitza izateko eskubidea bermatzera bideratutako etxebizitzak*



eta edozein desgaitasunek eragindako mendetasun-egoerak edo gizarte-bazterketaren arriskuko egoerak konpontzera bideratuak.”

4. Beste alde batetik, Arartekoak egiaztatu du kasu honetan Etxebizitza Sailburuordetzak ez duela eman ebazpenik, zer gertatu den labur-labur azaltzen duenik eta kexagileari etxebizitza bat ezohiko prozeduraren bidez ez adjudikatzea erabakitzekeo zer zuzenbideko oinarri aplikatu diren argitzen duenik.

Horregatik kexagileak ezin izan du jakin zergatik ukatu zaion eskatu duena, eta ondorioz ezin erabili izan du erabakiari aurre egiteko eskubidea.

Arartekoaren ustez gaur egun etxebizitza bat zuzenean adjudikatzekeo indarrean dagoen esparru juridikoan ez daude argi zehaztuta esku hartzen duten alderdien ahalmenak eta bermeak.

Beraz, arauketa amaitu eta zehatzik ezean, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea (hemendik aurrera APEL) aplikatuko da etxebizitza zuzenean adjudikatzekeo prozeduraren bermeak zehaztekeo eta finkatzekeo.

5. Arartekoaren ustez bere udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuetara jotzen duen pertsona batek etxebizitza-premia larria badauka eta ezarritako irizpideak betetzen dituela egiaztatzen badu, interesduna du inolako zalantzarik gabe. Hain zuzen ere, APELaren 4. artikuluan honela definitzen dira interesdunak:

- *“Prozedura haiek ez hasi arren hartan hartuko den erabakiak uki ditzakeen eskubideak dituztenak.”*

Ondorioz, APELaren 53. artikuluekin bat, eskubide hauek dauzkate, besteak beste:

- *“Noiznahi jakitea interesdun diren prozeduren izapidetzea nola doan; administrazio-isiltasunak zer esanahi duen, Administrazioak ez badu epean ebazpen espresurik ematen ez jakinarazten; zer órgano den eskudun instrukzioa egiteko, hala badagokio, eta ebazpena emateko; eta zer izapide-egintza eman dituen. Eskubidea izango dute, orobat, prozeduretan jasotako dokumentuak eskuratzeko eta haien copia lortzeko*

(...)

Prozeduraren edozein alditan, betiere entzunaldiaren izapidea egin aurretik, alegazioak aurkeztu, ordenamendu juridikoak onartzen dituen defentsabideak erabili eta dokumentuak aurkeztea; organo eskudunak ebazpen-proposamena idaztean kontuan hartu beharrekoak, denak ere.”

Era berean, Arartekoak APELaren 21. artikulua ezartzen duena gogorarazten dizu:



- *"Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua."*

Azkenik, APELaren 40. artikulua honako hau ezartzen du:

"Administrazio-ebazpenak eta -egintzak ematen dituen organoak haien berri jakinaraziko die beren eskubide eta interesak ukitzen dizkien interesdunei

(...) Jakinarazpenean, ebazpenaren testu osoa jaso behar da, eta adierazi behar da administrazio-bidetik behin betikoa den ala ez, zer errekurtso jar daitezkeen, hala badagokio, administrazio-bidean eta auzibidean, zer organoren aurrean eta zer epetan, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera."

Laburbilduz, Arartekoak uste du ezen, babes publikoko etxebizitzak adjudikatzeko ezohiko prozedura segurtasun juridikoarekin arautzen duen araudi espezifikorik eta zehatzik egon ezean, interesdunak nahitaez eduki behar duela ebazpenaren berri, eta jakin behar duela zein diren isiltasunaren ondorioak eta zer errekurtso aurkez dezakeen.

6. Etxebizitza eskatzen duen pertsona interesduna izateari buruz orain arte argudiatutakoari gehitu behar zaio, gainera, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak prozedura hori EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko izapideen katalogoaren barruan sartu duela eta, beraz, edonork kontsultatu ahal duela.

Gai horri dagokionez, Arartekoak adierazi nahi du Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 38. artikulua honela definitzen duela egoitza elektronikoa:

- *"...helbide elektronikoa bat da, herritarrek telekomunikazio-sareen bitartez bali dezaketena. Haren titulartasuna administrazio publiko bati dagokio, edo organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate bati edo batzuei, bere eskumenen egikaritzan."*

Era berean, Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onesten duen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren 9. artikulua zera gehitzen du:

- *"Mediante dicha sede electrónica se realizarán todas las actuaciones y trámites referidos a procedimientos o a servicios que requieran la identificación de la Administración Pública y, en su caso, la identificación o firma electrónica de las personas interesadas."*



Zehazki, EA Eren kasuan, Herritarrei kanal anitzeko arreta integrala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 31. artikulua honako hau ezartzen du:

“Egoitza elektronikoa (helbidea: <https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa>) telekomunikazio-sareen bidez herritarrek eskura duten espazio elektronikoa da, eta haren bidez egingo dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren eta haren Administrazio instituzionalaren identifikazioa eta, hala badagokio, interesdunen identifikazioa edo sinadura elektronikoa eskatzen duten prozedurei edo zerbitzuei buruzko jarduketa eta izapide guztiak.”

Laburbilduz, erakunde honi arreta eman dio Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak igorritako erantzunean ez direla interesduntzat hartzen oinarrizko gizarte-zerbitzuetara etxebizitza-premia larria dutelako jotzen duten pertsonak, eta, hala ere, egoitza elektronikoa izapide bat diseinatu da, herritarrei edozein unetan zuzenean adjudikatzeko prozedura deiturikoa eskatzeko aukera ematen diena.

Bestela esanda, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak berresten duen bezala, udalak eskatu behar badu prozedura hastea, gizarte-zerbitzuei ez litzaieke eskatu behar egoitza elektronikoa bidez izapidetzea, baizik eta administrazioen arteko harreman baten bidez egin beharko litzateke, zeina elkarreragingarritasun zorrotza aintzat hartuta antolatu behar baita, datuak eta dokumentuak trukatzeko nodoen bitartez, antolamendu-konplexutasuna errazte aldera, berme juridikoei kalterik egin gabe³.

Hala eta guztiz ere, Arartekoaren iritziz, nekez justifika daiteke oinarrizko gizarte-zerbitzuetara edo Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzetara etxebizitza-premia berezia dutelako jotzen dutenak interesduntzat ez hartzea, kontuan hartuta babes publikoko etxebizitza bat errentamendu-erregimenean adjudikatzearekin amai litekeen prozedura dela.

7. Kasu honetan, Etxebizitza Sailburuordetzak ondorioztatu du kexagilea eta beraren bizikidetzaren unitatea ez daudela jasota etxebizitza bat ezohiko prozeduraren bidez adjudikatzeko aukera ematen duen ezein kolektibotan. Hala ere, Arartekoak uste du, udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuek egindako txostenean jasotako kalteberatasun-egoera egiaztatua eta bizikidetzaren unitatea bere kargura adingabe bat duen amak eta % 70eko desgaitasuna aitortua duen 60 urtetik gorako pertsona batek osatzen dutela kontuan hartuta, bizikidetzaren unitate eskatzailea martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 12.3 artikuluan xedatutako kasuen artean dagoela jo daitekeela, eta, beraz, etxebizitza-premia berezi egiaztatua duen familia-izaera egotz dakiokela.

³ **Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoa (Nisae).** Hemen eskuragarri: <https://www.nisae.izenpe.eus/hasiera/>



Honetaz ari garela, gogora ekarri behar da kexagileak oinarrizko gizarte-zerbitzuen aldeko txostena jaso zuela eta udalaren ordezkariak berretsi egin zuela eskaeraren bideragarritasuna eta etxebizitza bat zuzenean adjudikatzeko proposamena bidali zuela Etxebizitza Sailburuordetzara egoitza elektronikoaren bidez.

Are gehiago, behar bezala egiaztatuta geratu da kexagileak Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzara ere jo zuela bere egoera azaltzeko eta etxebizitza bat adjudikatzeko eskatzeko.

Azaldutako guztia gorabehera, kexagileak jaso zuen Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzaren erantzuna idazki tipo bat zen, eta modu orokorrean ematen zion adjudikazio-prozeduren, baremazio-irizpideen eta babes publikoko etxebizitzak eskuratzeko baldintzen berri. Hala ere, ez zuen idatzizko erantzunik jaso Etxebizitza Sailburuordetzak zuzeneko adjudikazio-eskaera ukatzeko hartutako erabakiari buruz.

8. Aurrean azaldu den guztiak ez du ezertan eragozten Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Arartekoari emandako aurreko erantzunetan aipatzen duen ahal diskrezionala.

Administrazio-agintariek ahal diskrezionalak eduki ditzakete eta eduki ere badauzkate, eta horrekin ados dago Arartekoa. Hala ere, ahal-sorta horren xedea ez da izan behar edozein helburu betetzea, baizik eta legeak berak nagusitzat jotzen duena, hau da, berrmatzea etxebizitza duina, egokia eta irisgarria legez okupatzeko eskubidea, kasu honetan bizitoki-premia larrian dagoela frogatu duen bizikidetzaren unitate batena.

*Izan ere, "la primera reducción de este dogma de la discrecionalidad se opera observando que en todo acto discrecional hay elementos reglados suficientes como para no justificarse de ninguna manera una abdicación total del control sobre los mismos (...) la Ley otorga con normalidad poderes discrecionales a la Administración, poderes en cuya aplicación la Administración mantiene una reserva de prudencia para valorar las situaciones concretas, pero estos poderes discrecionales están ellos mismos encuadrados por la Ley que, primero, los otorga, y, en segundo término, los ordena hacia fines concretos, regulando también la competencia y el procedimiento concreto para su ejercicio."*⁴

Amaitzeko, Auzitegi Gorenaren 2006ko maiatzaren 29ko epaiak hamaseigarren zuzenbideko oinarrian argi eta labur zehazten du zer den ahal diskrezionala:

- *"Aunque «la discrecionalidad es, esencialmente, una libertad de elección entre alternativas igualmente justas, o si se prefiere, entre indiferentes*

⁴ **Eduardo García de Enterría.** "Boterearen immunitateen aurkako borroka Administrazio Zuzenbidean (botere diskrezionalak, gobernu-botereak, araugintza-botereak)". Bartzelonako Unibertsitatea, 1962.

jurídicos porque la decisión se funda en criterios extrajurídicos (de oportunidad, económicos, etc.) no incluidos en la Ley y remitidos al juicio subjetivo de la Administración», no debe olvidarse tampoco que esta indiferencia no es total, sino relativa, pues la decisión que se adopte deberá respetar, en todo caso, los principios constitucionales básicos (entre ellos el principio de interdicción de la arbitrariedad de los poderes públicos, proclamado en el artículo 93 de la Constitución y los propios principios generales del Derecho, los cuales informan todo el ordenamiento jurídico (artículo 1.4 del Código Civil) y también por tanto, la norma habilitante que atribuye la potestad discrecional, como así lo exige también «el sometimiento pleno a la Ley y al Derecho» que la Constitución (artículo 103.1) impone a las Administraciones Públicas.»⁵

Beraz, arauak sakabanatuta badaude ere eta prozedura horri segurtasun juridikoa emango dion arauketa zehatz eta amaiturik ez badago ere, Arartekoaren ustez Etxebizitzaren Legeak 32.2 artikuluan ezartzen duena, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak 12.3 artikuluan ezartzen duena eta 2012ko urriaren 15eko Aginduak 2 f) artikuluan ezartzen duena kontuan hartuta, kalteberatasun bereziko kasuetan ere, hala nola bere kargura adingabe bat eta desgaitasun aitortua duen 60 urtetik gorako pertsona bat duen guraso bakarreko familia, etxebizitza zuzenean adjudikatzeko prozedura erabil daiteke, eta horrek ez du ezertan eragozten Etxebizitza Sailburuordetzaren ebazpen administratiboa emateko ahal diskrezionala.

9. Azaldutako guztiagatik, Arartekoaren iritziz, Etxebizitza Sailburuordetzak ez zituen behar bezala kontuan hartu kasuaren berezitasunak eta ez zuen ondo baloratu udalaren oinarrizko gizarte-zerbitzuek egiaztatutako etxebizitza-premia berezia.

Arartekoaren iritziz, bere kargura adingabe bat eta % 70eko desgaitasuna eta mendekotasun egiaztatua duen 62 urteko ama duen guraso bakarreko familia batek merkatu librean etxebizitza bat ezin eskuratzeak justifikatu egingo luke Etxebizitza Sailburuordetzak premiazko etxebizitza-premiari erantzuna ematea. Are gehiago, merkatu librean etxebizitza bat eskuratzeko izandako zailtasun larriak behar bezala egiaztatu direnean eta kexagilearen familiak bizi ziren udal-titulartasuneko gizarte-larrialdiko etxebizitza bigarren aldiz utzi behar izan duela egiaztatu denean, ezarritako gehieneko egonaldia nabarmen gainditu ondoren.

Iritzi hori bera jakinarazi zitzaion Etxebizitza Sailburuordetzari oinarrizko gizarte-zerbitzuek egindako txosten teknikoan. Izan ere, ebazpen honetan adierazi den bezala, gizarte-zerbitzuek gomendatu zuten etxebizitza adjudikatzeko ezohiko prozeduraren bidez.

Gainera, gogoan eduki behar da kexagilea etxebizitza bila aritu dela modu aktiboan eta ezin eskuratu izan duela bere beharrianetara egokitutako etxebizitzarik.

⁵ **Auzitegi Gorena.** 2006ko maiatzaren 29ko epaia. [ECLI: ES:TS:2006:3897]



Horrenbestez, Arartekoak uste du kasu honetan gertatzen direla Etxebizitzaren Legearen 32.2 artikuluan, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 12.3 artikuluan eta 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 2 f) artikuluan arautzen diren kausa subjektiboak, eta eskaeraren izapide administratiboak horren arabera egin daitezkeela.

Oro har, Arartekoak aipatu nahi luke amaitu gabeko ezohiko prozedura bat dagoela etxebizitza babestuak adjudikatzeko etxebizitza-premia larria daukaten pertsona kalteberenei. Horregatik guztiagatik, Arartekoaren ustez segurtasun juridiko egokia eman behar zaio prozedura horri, eta kasu honetakoa bezalako egoeran dauden pertsonen etxebizitzarako eskubidea erabat arautu behar da eta eskubide horri eduki subjektiboa eta objektiboa ezarri behar zaizkio. Hori guztia ezinbestekoa da Etxebizitzaren Legearen eta beraren garapen-araudiaren azken helburutik urruntzen diren erabakiak saihesteko.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak etxebizitzarako eskubidearen segurtasun juridikoa eta zuzenbide-ziurtasuna lortu behar ditu ezohiko adjudikazio-prozeduretan ere.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Azaldu dena aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak berrius dezala kexagileak etxebizitza bat zuzenean esleitzeko egindako eskaera ukatzeko erabakia, behar bezala ebaluatuz bizi den udalerriko oinarritzko gizarte-zerbitzuek egiaztatu duten etxebizitza-premia larria.

Nolanahi ere, Arartekoaren iritziz Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak segurtasun juridiko eta zuzenbide-ziurtasun handiagoak ezarri behar lizkioke etxebizitza zuzenean adjudikatzeko prozedurari, eta esku hartzen duten alderdien bermeak eta ahalmenak zehaztu behar lituzke.

Azkenik, Arartekoak gomendatzen dio Etxebizitza Sailburuordetzari eman dezala berariazko administrazio-ebazpena, eta jakinaraz dezala, etxebizitza ezohiko prozeduraren bidez adjudikatzeko proposamena egiten den prozedura guztietan. Horren guztiaren helburua da interesdun guztiek haien berri edukitzea eta nahi dituzten errekursoak aurkeztu ahal izatea beren eskubideen alde.

